

Elgetan, 2023ko abenduaren 19an

Alkate agurgarria:

Idatzi honen bidez Elgetako EAJ-PNV Udal Taldeak honako mozio hau aurkezten du datorren abenduaren 26ko Osoko Udal Batzarreko gai-zerrendan jaso eta eztabaida dadin:

PENTSIOEI BURUZKO MOZIOA

Badira bospasei urte pentsioen gaia pil-pilean dagoela eta gure kaleetan hainbat aldarrikapen entzuten ditugu gai honi lotuta. Tartean, 1.080€-ko gutxieneko pentsioaren eskaera. Baina, azken urte hauetan koiuntura ekonomiko konplexua bizi dugu, batez ere, inflazioak eta nazioarteko gatazkek markatutakoa. Ezegonkortasun eta gorabehera horiek eragin zuzena dute herritarren erosahalmenean eta, beraz, kopuru finko bat ezartzeak ez du pentsioen, ezta balizko gutxieneko pentsio edo pentsio baxuenen erosketa ahalmena bermatzen; are gutxiago aldarrikatzen den zenbateko hori testuinguru ezberdinen aurrean konstante mantentzen bada.

Euzko Alderdi Jeltzaleak pertsona pentsiodunekin duen konpromisoa irmoa eta egiaztagarria da. Gogora dezagun 2018an pentsioen igoera orokorraren aldaketa (aurreikusitako 0,25etik 1,6ra igaroz), alarguntasun pentsioaren oinarri arautzaileari aplikagarria zaion igoera (% 54tik 56ra pasata), eta jasangarritasun faktorearen indarraldi sarreraren atzerapena sartzea lortu genuela Estatuko Aurrekontu Legean. Errealitatea da gaur gaurkoz, Estatua dela arduradun eta erantzule bakarra gai honi dagokionez.


Kotizazioak Estatuko Gizarte Segurantzaren Kutzara egiten dira. Gizarte Segurantza da egokitzapenak gauzatu behar dituen. Estatuaren eskumena da, nahiz eta eskualdatzeko dago oraindik Gernikako Estatutuak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esku uzten duen Gizarte Segurantzaren Erregimen Ekonomikoaren Kudeaketa. Euskal erakundeek, momentuz, borondate oneko osagarriak egin ditzakete eta hala egiten dute aspalditik pentsio baxuenekin. Horrenbestez, ez deritzogu bidezkoa denik ardura eta eskaera horiek gure erakundeen gain jartzea, eskumen hori edukitzeak suposatuko lukeen baliabide propio barik itzeleko ahalegina egiten ari baitira.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorengoak adostea eskatzen diogu Elgetako Udalari:

1. Estatuko Gobernuari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 1ean gehiengo zabal batez adostu zuen akordioan xedatutakoari erantzunez, pentsio sistema nahiko eta jasagarria bermatzea, elkertasunean eta gardentasunean oinarrituta, pentsio duina jasotzeko eskubidea betez eta egiazko finantzaketa iturriak direla medio pentsio duin eta aurreikusgarriak ematen direla bermatuz.

2. Estatuko Gobernuari eskatzea gutxieneko pentsioa duintzeko esfortzua egin dezala sistema elikatzeko diru-sarrerak handitzera bideratutako neurriak hartuz, sistemaren beraren gastuetan eraginez eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferentziatuz hartuz.
3. Estatuko Gobernuari eskatzea, lehen puntuan aipatzen den akordioa gogoan eta Euskadiko pentsiodunen egoera hobetzera begira ezinbestean bete behar den baldintza dela aintzat hartuz, urratsak ematen has dadila Segurantzaren Sozialaren eskuduntzak Euskadiko erakundeei transferitzeko, Gernikako Estatutuaren 3/1979 lege Organikoaren 18.2. artikuluan eta Aldi baterako 5. Xedapenean jasotzen denarekin ados.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an gehiengo zabal batez onetsi zuen Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearekin ados, pentsiorik baxuenak osatzen jarrai dezala hiritargoaren bizi baldintza duinei eusteko eta prestazio hau Europako estandarretara egokituta dagoela bermatuz.
5. Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ezagutzera ematea Udal honetan adostu den akordioa.

Dagozkion ondorioetarako,



Iker Laka Barandika
Elgetako EAJ-PNVko udal taldeko bozeramailea